

## KONTRATATZEN DIREN HORNIDURA ETA/EDO ZERBITZU GUZTIETARAKO BALDINTZA OROKORRAK

### 1. NORAINOKOA

Energia elektrikoaren eta/edo gas naturalaren hornidura eta, hala badagokio, Berariazko Baldintzetako zerbitzuen ematea agiri honetako Berariazko Baldintzei, Baldintza Orokorrei eta eransten zaizkien Gehigarrietakoei jarraiki egin behar da, eta une horretan indarrean den legediaren arabera.

Hemendik aurrera, “komertzializatzailea” deituko diogu Naturgas Energia Comercializadora SAUri.

### 2. HASIERA

Kontratatutako hornidura bakoitza indarrean sartu aurretik, eskualdeko banatzaileek baimena eman behar diote Komertzializatzaileari bere sareetara sartzeko eta gauzatu egin behar da baimena. Agiri hau plazaratu eta sei hilabeteren buruan ez baldin bada gauzatu sarrera, eskubidea du Komertzializatzaileak kontratuari uko egiteko. Hala egiten badu, bezeroari jakinarazi behar dio, edo, bestela, berariazko Baldintzak aldatu, Baldintza berriak idatziz Bezeroari bidaliz. Berariazko baldintzak aldatu eta 30 egunen buruan bezeroak ez badu idatziz adierazi haien aurka dagoela, onartu egiten dituela joko da.

### 3. IRAUPENA

Berariazko baldintzetan ageri den epekoa izango da iraupena. Komertzializatzaileak kontratatu eta sarera sarbidea eskuratu duen azkeneko hornidura aktibatzen den egunetik hasten da zenbatzen epea. Kontratua iraungitakoan, urtebeteko aldietan luzatuko da, bi aldeetako batek hamabost eguneko gutxieneko aurrerapenarekin aurkakoa adierazi ezean.

### 4. ALDATZEA

Kontratuaren baldintzak aldatzeko, ezinbesteko baldintza du Komertzializatzaileak Bezeroak aldaketa onartzea. Horretarako, Komertzializatzaileak idatziz jakinarazi behar dio aldaketen berri Bezeroari, honek, ados ez badago, Naturgas Energia Comercializadora, S.A.U.ri eman diezaion, 15 eguneko epean eta idatziz, kontratua bertan behera uzteko asmoaren berri. Baldintza berriak isilbidez onartutaz joko dira bezeroa ez bada 15 egunen buruan -informazioa eskuratzen duen egunetik zenbatzen hasita- haien aurka agertzen.

### 5. KONTRATUA AMAITZEA

Kontratatzen diren zerbitzuak bukatutzat jotzeko, aldeek elkarrekin ados jarri behar dute, edo aldeetakoren batek uko egin erabakitako baldintzetan kontratua luzatzeari, edo, noiznahi, aldeetakoren batek kontratua denuntziatu beste aldeek ez duelako ordaindu edo obligazioen bat ez duelako bate.

Izatekotan ere, kontratua luzatzeari uko egiteak, kontratuari berari uko egiteak edo kontratua denuntziatzeko ez du indargabetzen kalteengatik ordaina jasotzeko eskubidea, eta, hain zuzen, bide arruntetik erreklamatu ahal dira kalteak.

### 6. KONTRATUAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Aldeek hitz ematen dute ez dietela hirugarrenei kontratu honi buruzko informaziorik emango beste aldearen aurretiko eta berariazko baimenik gabe.

### 7. BAIMENTZEA

Bezeroak berariaz baimentzen du merkaturatzailea Taldeko beste enpresa batzuei kontratatutako beste ondasun edo zerbitzu batzuen ordainketak, eta bezeroak kontratatutako eta jasotako zerbitzuengatik hirugarren batzuei egin beharreko ordainketak, fakturan sar ditzan.

Halaber, bezeroak baimena ematen dio Komertzializatzaileari eskualdeko hornitzailearen aurrean ordezkari gisa jardun dadin kontratatutako hornidurak gauza daitezen kontratu honetako Berariazko Baldintzetan deskribatzen diren HPKUetan.

### 8. KONTRATUA LAGATZEA / HARTAN SUBROGATZEA

Beraren antzeko ezaugarri subjektiboak dituen hirugarren bati kontratua lagatzeko eskubidea du bezeroak, Berariazko Baldintzak aldatu gabe. Hirugarren horrek eskubide eta betebeharr guztietan subrogatu behar du, betiere bezeroa (i) ordainketen (jakinaren gainean badago, (lii) modu frogagarrian jakinarazten badio Naturgas Energia Comercializadorari eta (liii) lagapena berariaz baimentzen badute lagatzaileak eta NECek.

NECek kontratu hau edo kontratuaren ondorioz sortutako eskubideak eta betebeharrak eman diezazkioke berekin lotura duen edo partaide edo ondoreng den edozein elkarteri, betiere elkarte horiek gai badira kontratatutako hornigiakik eta/edo zerbitzuak emateko; horretarako, Bezeroari jakinarazi baino ez du egin behar.

### 9. PREZIOAK

Kontratu honetan xedatutako prezioak ordainduko behar ditu bezeroak, benetan kontratatu dituen horniduren eta zerbitzuen arabera.

Prezioak ezartzean aintzat hartu den osagaien baten prezioa aldatzen bada (esate baterako, sarbide-tarifena, azken aukerako

tarifena, potentzia-bermearena, galerena, luzamendu nuklearrarena, energia erreaktiboarena...), bi aldeen gogoa gorabehera, aldatu egin daitezke prezio horiek. Horretarako, Komertzializatzaileak idatziz jakinarazi behar dio aldaketen berri bezeroari, honek, ados ez badago, Naturgas Energia Comercializadora, S.A.U.ri eman diezaion, 15 eguneko epean eta idatziz, kontratua bertan behera uzteko asmoaren berri, edo, bestela, prezio berriarekiko desadostasuna adieraz dezan. Bigarren aukera hautatzen badu, baja emango zaio aldaketak eragiten dion hornidurari, “Kontratu-amaiera” klausulatik bigarren paragrafoan aurreikusten diren ondorioekin. Bezeroak erantzuten ez badu aipatutako epean, prezio berria onartzen duela joko da. Aurrekoaren kalterik gabe, automatikoki alda ditzake Komertzializatzaileak prezio horiek, urtero, aurreko urte naturaleko KPiren arabera.

Berariazko Baldintzetan besterik adierazi ezean, prezioan ez da BEZa sartzen, ezta aplikagarri diren beste zerga batzuk ere. Etorikizunean zerga berririk ezartzen bazaie kontratatutako hornidura edo zerbitzu-emateei, edo aldatzen badira egungo zerga-tasak, oso-osorik erantsiko zaizkio igoerak edo aldaketak finkatutako prezioari.

### 10. KUOTA FINKOA

Berariazko Baldintzetan kuota finkoren bat hitzartu baldin bada, hilerro kopuru bera (kuota finkoa) fakturatuko zaio bezeroari. Kontsumo historikoak oinarri hartuta kalkulatuko da kuota finko hori, edo, halakorik ez badago, aurreikuspenen arabera, eta sei hilabetean behin edo urtero, gutxienez, berrikusiko da, irakurketa errealak aintzat hartuta.

### 11. FAKTURAZIOA ETA KOBRANTZA

Eskubidea du Komertzializatzaileak agiri bakar batean sartzeko kontratutako hornidura eta zerbitzuen fakturazioa.

Komertzializatzaileak, unean uneko prezio aplikagarriaren arabera, termino finkoa eta termino aldakorra fakturatuko ditu, Berariazko Baldintzekin bai eta baimendutako beste kontzeptu batzuei eragin gabe. Behar denean, zehatz adieraziko da fakturan neurtze-ekipoen alokairuari dagokion zenbatekoa.

Elektrizitate eta gas gisara fakturatutako kWh-ak Berariazko Baldintzetan deskribatutako hornidura-puntuiei dagozkien eremuetako hornitzaileen irakurketelan ageri direnak izan behar dute.

Bezeroak eskubidea du neurketa-ekipoak begiratu eta egiazta daitezen eskatzeko. Komertzializatzaileak ere eskubidea du neurketa-ekipoak egiazta eta ziurta daitezen eskatzeko, baita kontsumoen neurketa egitekoa ere.

Bezeroak emandako helbidera bidali behar ditu fakturak Komertzializatzaileak; bezeroak, berriz, 20 egun naturaleko epean ordaindu behar du, faktura bidali zen egunetik zenbatzen hasita, Berariazko Baldintzei jarraiki.

Ordaintzeko epea igarotzen bada eta ez bada ordaindu, ordaindu gabeko zor iraungiaren gutzitko zenbatekoari berandutze-interesak gehitu behar zaizkio. Berandutze-interesa kalkulatzeko, diruaren legezko interes-tasaren interes-tasa bera aplikatu behar zaio, ehuneko bi gehituta.

Bestalde, Naturgas Energia Comercializadora, SAUK eremuko hornitzaileari hornikuntza eten dezan eskatzeko eskubidea izango du, edota kontratua suntsitu ahalko du ez ordaintzeagatik. Dena den, horrek bezeroa ez du salbuesten zorraren gutzitzkoa eta sortutako interesak ordaintzeko belebeharretik, eta ez dio kenitzen Naturgas Energia Comercializadora, SAUri zorraren gutzitzkoa eta sortutako interesak ordain daitezen erreklamatzeko eskubidea. Hornidura eteten bada, ez da berriro ezarriko harik eta bezeroak zorra, sortutako interesak eta hornidura eteteagatik eta berriro ezartzeagatik sortutako gastuak osorik ordaindu arte. Kontratu honetan adostutakoaren arabera sortutako fakturak ordaintzeko epea amaituta, horiek bidezko arrazoirik gabe ordaindu gabe jarraitzen badute, indarrean dagoen legeriaren eskakizunak beteta, ondare- eta kreditu-kaudimenari buruzko informazio-fitxategiei eman ahal izango zaio zorraren berri.

### 12. PUNTU-PROGRAMA

Agiri hau sinatuz, Naturgas Energia Comercializadora, S.A.U.ren puntu-programari atxikitzen zaio bezeroa eta espresuki onartzen ditu programaren baldintza orokorrak.

### 13. BESTELAKO ZERBITZUAK

Berariazko Baldintzek diotenari jarraiki bezeroak beste zerbitzuren bat kontratatzen baldin bada, kontratu honen osagaitz eransten dugun gehigarriko xedapenen araberakoa izan behar du hark ere.

### 14. URRUNEKO KONTRATAZIOA

Kontratu honen garapenean sor daitezkeen gai eta gertaera guztiak, ematen diren hornikuntzen eta zerbitzuen osagarri beste produktu batzuen kontratazioa bezeroari eskaintzea barne dela, telefono bidez edo bide telematikoz egin daiteke, Komertzializatzaileak ematen dituen kode edo identifikazio- eta segurtasun-metodoen bidez.

Bezeroak bide horietatik emandako boieztapenak baliozkotasun

juridiko osoa izan dezan, Naturgas Energia Comercializadora, S.A.U.k jartzen dituen baldintzen arabera erabili behar dira.

### 15. UKO EGITEKO ESKUBIDEA

Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Babesteko Lege Orokorren Testu Baleratuaren 3 artikuluan eta beste zenbait lege osagarrien xedatutakoaren ondorioetarako bezeroa kontsumitzailea bada (azaroaren 16ko 1/2007 Errege Dekretuak onartuta), uko egin ahal izango dio kontratu honi, hau urrutira gauzatzu gero eta zapi laneguneko epean, telefonoz edo Internetez, bai eta merkaturatzailearen establezimenduetatik kanpo ere.

Eskubide hori gauzatzeko, behar bezala beteta bidaliko dio bezeroak uko egiteko dokumentua merkaturatzaileari, honako helbidera: Pio Baroja plaza 3, 2. solairua, 48001 Bilbo.

Uko egiteko eskubidea gauzatzeko, bezeroak ez du bere erabakia zertan zeritu, eta ez du horregatik inolako zigorrik izango. Elkarri emandako prestazioak amaitu egingo dira, ordea, Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Babesteko Lege Orokorraren Testu Baleratuan aurreikusitakoaren arabera.

### 16.– BEZEROAREN ARRETARAKO ZERBITZUA

Kontratu hau dela-eta komunikazio, zalantza edo erreklamazioen berri emateko, Naturgas Energiako 902 123 456 telefono-zenbakira deitu behar du bezeroak.

### 17.– APLIKA DAITEKEEN LAGERIA ETA GATAZKEN EBAZPENA

Kontratu hau Espainiako legeriaren mende dago. Horrekin lotutako desadostasunik edo gatazkarik sortuz gero, hornidura-puntua dagoen herriko epaitegi eta auzitegietara jotzea adosten dute aldeek.

2017ko iragarpenak — 107

## ELEKTRIZITATE-HORNIDURAREN BALDINTZA OROKORRAK

2025ko iragarpenak — 107

### 18. KONTRATATUTAKO POTENTZIA

Kontratatutako potentzia bezeroak hautatutakoa da, eta aldatzeko eskubidea du. Horretarako, Naturgas Energia Comercializadora, S.A.U.ri jakinarazi behar dio, eta horrek, berriz, enpresa banatzaileari helarazi behar dio eskaria. Bezeroaren kontura izango dira legez ordaindu beharreko kontzeptuak direla eta (hartunea, lotura, egiaztatzea nahiz beste) egin beharreko ordainketak, baita bere jabetzako instalazioa arauekin bat etortzeko behar diren aldaketa teknikoak egitea ere.

Kontratatutako potentzia aldatzeko, arauz ezarritako baldintzak bete behar dira, eta enpresa banatzaileak aldaketa onartzen duen egunetik izango da indarrean. Potentzia aldatzeak Berariazko Baldintzetan finkatutako prezioa aldatzea ekar lezake.

### 19. HORNIDURAREN KALITATEA

Zerbitzu hauek ematea sartzen da:
a)Gas naturala hartu behar duen banakako instalazioaren ikuskapena. Komertzializatzaileak akreditatutako teknikariek gasa hartu behar duen banakako instalazioa ikuskatuko dute urtean behin, salbu eta gas-banatzaileak aldian behin egin behar izaten duen nahitaezko azterketaren urtean. Eragiketa hauek bilduko ditu ikuskapenak:

- Azken instalazioaren estankotasuna egiaztatzea
- Ixe-balbulak ondo dabilzala egiaztatzea
- Instalatutako segurtasun-elementuak egiaztatzea
- Gas-aparatuen liroa egiaztatzea
- Aireztapena egiaztatzea
- Lokaleko airearen kalitatea egiaztatzea (aireko karbono-monoxidooa neurtzea)
- Hodi malguen egoera, instalazio elektrikoak eta instalazio-materialiak egiaztatzea
- Gas naturaleko instalazioaren egoera eta aurkitutako irregulartasunak biltzen dituen txostena idatzea

Gas naturala hartu behar duen instalazioaren azterketaren kostua ere biltzen du bere baitan. Enpresa banatzaileak lau urtelik behin egin behar izaten du azterketa hari Bezeroaren kontura.

### 21. HORNITZE-BETEBEHARRA

Naturgas Energia Comercializadora, SAU behartuta dago Bezeroaren aurrean arauz zehaztutako baldintza legal, tekniko eta ekonomiko guztiak betetzera.

Halaber, behartuta dago kontratu honek irauten duen aldian gas-sistemaren hornikuntzako eta instalazio-erabilpeneko (ATR) kontratu guztiak harpidetzera eta indarrean mantentzera, kontratatutako hornikuntza gauzatzeko beharrezkoak badira.

Hornidura-puntuan horniduraren kalitatea barra bada edo gas-hornidura eteten bada, Naturgas Energia Comercializadora, SAUK bezeroaren erreklamazioei erantzun beharko die (Naturgas Energia linea: 902 123 456), eta haren izenean kudeatu behar ditu horniduraren kalitate eta jarraipeneko arduradun den eremuko hornitzailearen aurrean dagozkion murriztapen edo deskontuak, indarrean diren legeek diotenari jarraiki. Naturgas Energia Comercializadora, S.A.U.k bezeroari osorik aplikatu behar dizkio eskualdeko hornitzaileak gas-horniduraren zerbitzua eteteagatik egindako deskontu guztiak, indarrean den legediari jarraiki.

Nolanahi ere, Naturgas Energia Comercializadora, SAU behartuta dago bezeroari eskatzen duen gas-hornidurari buruzko informazio guztia eskaintzera eta aholkua ematera.

### 22. ERANTZUKIZUNA

Naturgas Energia Comercializadora, SAUK kontratu honen arabera hornitutako gas naturalak Sistemaren Kudeaketa Teknikorako Arauetan adierazitakoa bete behar du, eta UNE-EN-437 Arauan xedatutakoarekin bat etorri osaketari, bero-ahalmenari eta gainerako ezaugarriei dagokienez. Halaber, gasari usaina behar bezala eman behar zaio, giza usaimenak ihes oro hauteman ahal dezan nahasteak sukaitasunaren behe-mugaren bostenaren pareko kontzentrazio bolumetrikoa duenean. Hornitutako gas naturala produktu sukoia da, baina ez da toxikoa eta ez du karbono monoxidorik.

Bezeroak Naturgas Energia Comercializadora, S.A.U.ri bermatzen dio bai gasaren instalazio hartzaileak eta bai gas-aparatuek indarrean diren arauetan xedatutako ezaugarri tekniko eta segurtasuneko ezaugarri guztiak betetzen dituztela hornidura hasten den uean. Horretarako, eremuko hornitzaileak eta gas-aparatuen zerbitzu tekniko ofizialek gidoritako dokumentazio guztia eskuratu behar zaio Naturgas Energia Comercializadora, SAUri, ezaugarri horiek betetzen direla egiaztatzeko.

Gas naturalaren erabilera segurua eta arduratsua izate aldera, bezeroaren ardura da gas-instalazio hartzaileak nahiz gas-aparatuak erabilera- eta funtzionamendu-baldintza hobezinetan mantentzea eta eremuko hornitzaileak eta fabrikatzaileak edota gas-aparatuen zerbitzu tekniko ofizialak horien mantentze-lanei, erabilerrari nahiz segurtasunari buruz ematen dituzten ohar eta argibideei jarraitzea. Nolanahi ere, bezeroa da arduradun bakarra gas naturalari etxeko erabileraz bestelakorik ematen bazaio eta/edo gas naturalarekin erabiltzeko espezifikoki diseinatuta ez dauden instalazio eta gailuetan edo gailu desegokietan erabiltzen bada, bai eta, horretarako egokiak izanik ere, akatsak dituzten, egoera txarrean diren edo gaizki funtzionatzen duten gailuetan erabiltzen bada ere.

Naturgas Energia Comercializadora, SAUK ardura zibileko aseguru-poliza izango du eta eguneratua mantenduko du; kontratu honetatik erator daitezkeen pertsonentzako eta ondareentzako arriskuak estaltzeko behar adinako zenbatekoa izango du aseguruak.

2025ko iragarpenak — 107

## funtziona ETA funtziona plus ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

### 1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da bere goiburuan aipatzen den etxebizitzako argindar- eta gas-instalakuntzei **funtziona edo funtziona plus** zerbitzua ematea.

### 2. FUNTZIONA ETA FUNTZIONA PLUS ZERBITZUAREN NORAINOKOA

Zerbitzu hauek ematea sartzen da:

a)Gas naturala hartu behar duen banakako instalazioaren ikuskapena. Komertzializatzaileak akreditatutako teknikariek gasa hartu behar duen banakako instalazioa ikuskatuko dute urtean behin, salbu eta gas-banatzaileak aldian behin egin behar izaten duen nahitaezko azterketaren urtean. Eragiketa hauek bilduko ditu ikuskapenak:

- Azken instalazioaren estankotasuna egiaztatzea
- Ixe-balbulak ondo dabilzala egiaztatzea
- Instalatutako segurtasun-elementuak egiaztatzea
- Gas-aparatuen liroa egiaztatzea
- Aireztapena egiaztatzea
- Lokaleko airearen kalitatea egiaztatzea (aireko karbono-monoxidooa neurtzea)
- Hodi malguen egoera, instalazio elektrikoak eta instalazio-materialiak egiaztatzea
- Gas naturaleko instalazioaren egoera eta aurkitutako irregulartasunak biltzen dituen txostena idatzea

Gas naturala hartu behar duen instalazioaren azterketaren kostua ere biltzen du bere baitan. Enpresa banatzaileak lau urtelik behin egin behar izaten du azterketa hari Bezeroaren kontura.

b)Instalazio elektrikoaren ikuskapena.

Komertzializatzaileak akreditatutako teknikariek instalazio elektrikoa (potentzia kontrolatzeko etengailuaren kutxa, aginte-

gailu orokorrak eta barne-instalazioaren babesal ikuskatuko dute urtean behin; kontratuak dirauen lehen urtean programatuta, eta hurrengoetan Bezeroak telefonoz eskatuta. Eragiketa hauek bilduko ditu ikuskapenak:

- Babes-koadro orokorraren egoera egiaztatzea (banakako deribazioaren bilgailua, sekzioa eta konexioa, marra bakarreko eskema, PKE -potentzia-kontroleko etengailua, etengailu orokorra, etengailu diferentziala, zirkuitu bidezko gaitzkargen kontrako babes-gailuak eta eroaleen isolamenduaren sekzioa eta egoera). 40 A tik beharkoak direla, sarritu dago erabilera arruntagatik babes-koadro orokorrean matxuratutako elementu elektriko oro doan aldatzea.
- Etxebizitzan diren etengailu eta entxufeen egoera orokorra egiaztatzea, iristeko moduan eta ezkutatu gabe daudenak betiere.
- Iristeko moduan diren lokal bustietako entxufeen lurrerako zirkuitua egiaztatzea.
- Segurtasuneko gutxieneko distantziak indarrean dauden arauekin bat datozela egiaztatzea.
- Iluminantzia-maila luxmetro bidez neurtzea
- BKOren (Babes-koadro orokorraren) kokalekua eta errotulazioa egokiak direla egiaztatzea
- Aurreko instalazioaren egiaztapenak biltzen dituen txostena idatzea

c) Bezeroak aldez aurretik telefonoz eskatuta, laguntza teknikoa hauetako matxuraren bat konpontzeko:

- Gas naturala hartu behar duen banakako instalaziokook nahiz berokuntzako zirkuitu hidraulikokook
- Argindar-instalaziokook
- Berariazko Baldintzetan jasoa den gas naturaleko galdara edo berogailukook.

Esku-hartze horien kostua Bezeroaren kontura izango da, salbu eta joan-etorrien kostuak eta eskulanaren lehen hiru orduei dagozkienak.

d)Larraldietako laguntza teknikoa, Bezeroak aurrez telefonoz deituta, gas- nahiz argindar-instalazioaren edota berokuntzako zirkuitu hidraulikoaren matxurak konpontzeko. Aurrekoarekiko, egoera hauek hartuko dira larralditzat:

- Gasa jasotzen duen instalazioan gas-jarria izatea.
- Uholde-arrisku ekar lezaketen berokuntza-zirkuitu hidraulikoko matxurak.
- Etxebizitzako bertako argindar-instalazioaren matxurak, baldin eta haren segurtasuna arriskuan jarri nahiz argindar-hornidura eten balezakete.

Komertzializatzaileak akreditatutako teknikariak etxebizitzan izango dira matxura-gaztigua jaso eta hiru ordu igara aurretik. 8:00 eta 23:00 artean egiten diren larraldiko laguntza teknikoak mugatuta egongo dira.

Esku-hartze horien kostua Bezeroaren kontura izango da, salbu eta joan-etorrien kostuak eta eskulanaren lehen hiru orduei dagozkienak.

e)Eraginkortasun energetikoari buruzko aholkua. Aldian behin, Komertzializatzaileak Bezeroari aholku emango dio engeriaren eraginkortasunari, segurtasunari eta aurrezteari buruz.

f) **funtziona plus** modalitatea kontratatuz gero, Komertzializatzaileak egingo du Berariazko Baldintzetan zehaztutako gas naturaleko galdara edo berogailuaren urteroko ikuskapena, indarrean diren arauetan finkatutako norainokoz.

### 3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honek urtebete iraungo du sinatzen denetik kontatzen hasita. Bezeroak hilabeteko aurrerapenez berariaz aurkakoa adierazi ezean, berez luzatutzat joko da beste hainbesteko denboraz.

### 4. BERMEAK

Komertzializatzaileak legeek ezarritako epeaz bermatzen ditu berokuntzako zirkuitu hidraulikoan, galdara/berogailuan, gasa jasotzen duen banakako instalazioan nahiz Etxebizitzako bertako argindar-instalazioan egiten dituen konponketak. Berme honetatik kanpo gelditzen dira Bezeroak nahiz Komertzializatzaileak akreditatu gabeko beste inork instalazioa manipulatzegatik eragindako akatsak edo irregulartasunak.

### 5. KONTRATUTIK KANPOKO ZERBITZUAK

Berariaz gelditzen dira kontratu honetatik kanpo zerbitzu hauek:
– Baldintza Orokor hauetan berariaz adierazi gabeko tresna elektriko guztien ikuskapena eta konponketa.

– Baldintza Orokor hauetan berariaz adierazi gabeko gas-tresna guztien ikuskapena eta konponketa.

– Banaketa-sarearen eta Etxebizitzako babes-koadro orokorraren artean dagoen argindar-instalazioaren zatiaren ikuskapena eta konponketa.

– Argindar- nahiz gas- instalazioa eta galdara/berogailua konpontzea, baldin eta, kontratu hau indarrean egonik, Komertzializatzailearena nahiz horren zerbitzu tekniko ofizialelako ez den inork esku hartu edo manipulatu baldin baditu.

- Kebideen konponketa, egokitzapena eta garbiketa.
- Lokalen aireztatze-beharrek eragindako erreformak.
- Matxurak konpontzean erabilitako materialak eta ordezko piezak.
- Instalazioak axolagabekeriaz erabiltzeak edo kontserbatzeak eragindako kalteak.
- Sute, leherketa, uholde, izozte nahiz bestelako ohiz kanpoko kausek eragindako kalteak.
- Galdara/berogailua zaharkitua egonik harentzako ordezko piezarik ezin aurkituz gero hura konpondu ezinak bada, haren konponketa.
- Pieza esteliko, beira, artelan nahiz beste edozein motatako salgai erakutsi nahiz gordeek jasotzen duten kalteen konponketa.
- Energia-kontsumoko aparatuak konpontzeko Zerbitzu Teknikoaren instalazioelara eman behar direnean, haien garrarioa.
- Ziurtagiri Ofizialak jaulkitzea eskatzen duten gas- nahiz argindar-instalazioen egokitzapen eta aldaketak.
- Obra zibileko lan oro.
- 70 kW baino potentzia handiagoko berogailu eta galdaren matxurak artatzea.

### 6. ETXEBIZITZARAKO SARBIDEA

Kontratutako zerbitzuak gauzatu ahal izateko, Bezeroak Etxebizitzararako sarbidea eraztuko die Komertzializatzaileak behar bezala akreditatutako langilei.

### 7. ERANTZUKIZUNA

Bezeroa izango da beer gas- nahiz argindar-instalazioa eta bere galdara/berogailua kondizio onetan atxikitzeko eta aurkitzen duen edozein irregulartasun konpontzeko arduradun bakarra. Bezeroak eta Komertzializatzaileak uko egiten diote zeharkako kalteengatik eta mozkin-galeragatik erantzukizuna elkarri eskatzeari,